

EUSKARAREN Berripapera

sumarioa

1 • Euskararen bidégileak

2 • Mari Jose Olaziregi: Euskal gazteen irakurlezaletasuna
• Laburrak: Elizbarrutiaren bideoak Kultur Eskola Gasteizen Euskararen jaiak
• Agenda: Apirilean, liburuaren egunak

3 • EHUren II Plangintza
• Ariadna dirulaguntzak
• Egonaldiak familia euskaldunetan

4 • EKE Interneten
• Jaurlaritzak eta Kontseiluak hitzarmena
• UZEIren "Ekonomia eta finantzak" hiztegia



J. Frantzisko Aizkibel



Gabriel Aresti



Pierre Lhande Heguy



Plazido Muxika



Santiago Onaindia



Balendiñe Albizu



Jon Etxaide



Marie Jeanne Minaberry

Euskararen bidégileak:

HIZTEGIGILEAK ETA GERRA ONDOKO ZENBAIT IDAZLE

Bidégileak bildumako bi sorta berri aurkeztu ditu Hizkuntza Politikarako Sailordetzak. Lau hiztegiak eta gerra ondoko zenbait idazle dira bertan ageri diren euskararen suspertzaileak. Zortzi izen berri ditugu hamabigarren eta hamahirugarren sorta hauetan.

Hiztegiak helburu

Hiztegiak ditugu hamabigarren sortaren helburu. Bertan ageri diren lau bidégilek hiztegiaren bat burutu izana dute amankomunean. Jose Frantzisko Aizkibel

(1798-1864), Pierre Lhande (1877-1957), Plazido Muxika (1906-1982) eta Gabriel Aresti (1933-1975) dira lau hiztegiak.

Idazle, hiztegiak eta lexikografo izan zen Aizkibel. Euskararen hiztegi erraldoia da bere lanik nagusia: *Euskaratik Erdarara biurtzeko itzulia*. 1838an bukatu arren, 1885ean argitaratu zen. Hiztegiaren oinarri, Silvain Pouvreau-ri kopiaturiko bi glosario erabili zituen.

Pierre Lhande idazle lapurtarrak Ipar Euskal Herrian mintzatzen diren euskalkietako lexikoaren bilduma argitaratu zuen 1926an: *Dictionnaire Basque-Français et Français-Basque*. Urte askoan iraun duen hiztegia da Lhanderena.

Plazido Muxikak hiztegi bat baino gehiago egin zuen. Hala ere, *Diccionario Castellano-vasco* (1965) hiztegi mardula da bere lanik garrantzitsuenak. Hiztegiak zaildua izan zen, eta horren erakusgarri dira ondoko lanak: *Diccionario Latino-español y español-latino* (1940), *Diccionario griego-español* (1942), *Diccionario del Mundo*

Clásico (1952), *Diccionario Vasco-castellano abreviado* (1973), eta *Diccionario vasco-castellano* (1981) bere hiztegi handiko fitxak irauliz egin zuena.

Jakina da Gabriel Aresti poesia modernoaren eta antzerkiaren bultzatzaile eta berriztatzaile nabarmena izan zena. Baina hiztegiaren ere jardun zuen. *Batasunaren Kutxa* hiztegitxo argitaratu zuen Euskaltzaindiak 1968an Arantzazun egindako bileren ondoren -euskal hitzak euskaraz azaltzen zituen lehenengo-, eta 1973an *Hiztegi Tipia* argitaratzen hasi zen, oraingo euskal entziklopien bide-urratzaile.

Hamahirugarrean, gerra ondoko zenbait idazle

Gerra ondoko lau idazle osatzen dute hamahirugarren sorta. Bertan dira Jon Etxaide (1920-1998), Santi Onaindia (1909-1997), eta oraindik bizirik ditugun bi idazle: Balendiñe Albizu olerkaria, eta euskarazko haur literatura modernoaren aintzindariarik den Marie Jeanne Minaberry. *Berripaperaren* hurrengo aleetan emango dugu hauen berri gehiago.

Bidégile gehiagoren argitalpena

Aurten berean beste hainbat bidégileren berri izango da bilduman. Antonio Maria Labaien, Piarres Lartzabal, Augustin Zubikarai eta Toribio Alzaga -laurak ere antzerkiaren jardunak- izango dira bildumako 14. sortan, eta Rosa Bustintza, Aingeru Irigarai, Alfonso Irigoien eta Federiko Krutwig, berriz, 15.ean. Hurrengoan -16. sortan beraz-, argitaratzaile lanetan ari izandako Bittor Gaubeka Duo, Ixaka Lopez Mendizabal, Bernardo Estornes Lasa eta Patxi Unzurrunzaga izango dira aztergai. Bildumako 17. sortan ageriko dira: Michel Labeguerie, Telesforo Monzon, Gorgonio Renteria eta Toribio Etxeberria, laurak ere politika munduari loturik jardun zuten bidégileak. Bilduma, gainera, Interneten ageriko da laster.

laburrak

BIDEOAK EUSKARAZ
KATEKESIAN

Euskal Herriko eliz barrutiek 36 bideo bikoiztu dituzte euskarara 1991az gero, 6 urtetik 12 urte bitarteko haurrekin katekesian lan egiteko itzuli dituzte bideoak. Kanadan, Txekian edo Ameriketara eginak dira eta, gehienak, gaztelaniara baino lehen bikoiztu dituzte euskarara. Programaren helburua da katekesia, eta heziketa bera, haurrei beren hurreko hizkuntzan eskaintzea. Ikastölen Elkarteak eta FERE -ikastetxe erlijiosoen elkarteak-, proiektuan parte hartzen ari dira. Kultura Sailak diruz lagundu du bideoen euskaratzea, euskalgintza deialdiaren bidez.

KULTUR ESKOLA
GASTEIZEN

Gasteizko Bagare euskal tokiak antolatutako, gau-eskola izango da Arabako hiriburuan, apirilaren 14an hasita. Askotariko gaiak jorratuko dira bertan eta goi-mailako irakasleek zuzenduko dituzte saioak. Landuko diren gaiak buruzko materialak alde aurretik banatuko dira eta, nork bere gisa prestatu ondoren, denen artean eztabaidatuko dira. Udaberriean eta udazkenean burutuko dira eskolak eta honako gaiak jorratuko dituzte, besteak beste: euskal kultura eta kultura popularrak, euskal eskola, Euskal Herriaren historia, Globalizazioa eta Euskal Herria, euskal inteligentsia, gizarteratzearen fenomenoak...

EUSKARAREN JAIK

Martxoaren 14an egin zen Gasteizko Mendizorrotzan Eskola Publikoaren eguna eta Korrikaren hamaikagarren aldia hasi zen lau egun geroago Iruñean. Bi ekitaldiek hasiera eman zieten urtean zehar egin ohi diren euskararen jai handiei. Esaterako, maiatzaren 9an izango da Herri Urrats, Senpereko lakuan, ohi denez. Hil beraren 30ean egingo da Ibilaldia, Elorriean. Araba Euskaraz ekainaren 13an izango da, La Puebla de Labarkan. Udazkenean, berriz, urriaren 3an egingo da Kilometroak, Erreterian, eta Iruñean Nafarroa Oinez, urriaren 17an.



MARI JOSE OLAZIREGI

Gazteen irakurzaletasuna aztertu du



ZANDI ENO

Euskal gazteen irakurzaletasunari buruzko azterketa soziolinguistikoa egin eta argitaratu

berri du Mari Jose Olaziregi irakasleak Bergarako Udalaren eskutik. Gazteek euskaraz irakurtzeko duten ohituraren gainean hausnarketa egin du bertan Olaziregik.

1990ean irakaskuntza ertainetako ikasle euskaldunen artean egin zituen 3.000 inkestak izan dira ikerketa berriaren oinarri. Harrezkero, 1994an eta 1996an egindako elkar hizketek osatu dute Mari Jose Olaziregiren ikerlana. Bost urtean zehar egindako ikerketa izan da, finean.

1990ean lortutako datuak baieztatu egin ziren 1994an. Adibidez, literatura jenero guztiak harturik ere, irakurleek nahiago zuten narratiba; neskek gehiago irakurtzen zuten mutilek baino; adinean aurrera egin ahala gutxiago irakurtzen zuten gazteek; liburu aukera handia izateak era positiboan eragiten zuen irakurleengan...

Olaziregiren ikerketaren arabera, euskarazko liburuak gaztelaniazkoek baino gutxiago erakartzen dituzte gazteak. Abentura eta misteriozko nobelak gustatzen zaizkie gehienbat, baina nobela historikoak eta arazo soziopolitikoak buruzkoak ere gero eta gogokoago dituzte. Neskek gehiago irakurri arren, bestalde, atzerakoiago ohi dira beren jarrera etiko eta ideologikoetan.

Mari Jose Olaziregiren inkesten emaitzek adierazten dutenez, euskal idazle bat da -Bernardo Atxaga-, gazteek gustukoaren dutena. Irakurleek Atxagaren orijinaltasuna, bere testuen ulergarritasuna, estiloa eta erabiltzen dituen gaien hurbiltasuna maite dituzte bereziki.

Bergarako udalaren eskutik argitaratu duen *Euskal gazteen irakurzaletasuna* baino lehen ere irakurzaletasunari buruzko azterketak egiten nabarmendu da Mari Jose Olaziregi. Bere ikerketen berri gehiago da Egan aldizkarian eta *Bernardo Atxagaren irakurlea* liburuan.

Egun, unibertsitateko irakasle eta ikertzaile ez ezik, Galtzagorri elkarrearen arduradun ere bada Olaziregi. Elkarteak euskarazko Haur eta Gazte Literaturaren alde saiatzea du helburu.



APIRILEAN, LIBURUAREN EGUNAK

Haur eta Gazte liburuaren nazioarteko eguna ospatu ohi da apirilaren 2an, Hans Christian Andersen idazle danimarkararen jaiotza-egunaren oroitzapenez.

Geroago, berriz, hilaren 23an, Liburuaren Eguna izango da, William Shakespeare idazlearen oroimenez. Gero eta indar handiago hartzen ari dira bi egunak -bigarrenak, bereziki-, dendari askok kalera atera ohi dituzte liburuak eta arreta berezia eskaintzen diote egunari hedabideek. Idazle, ilustratzaile, argitaletxe eta banatzaileek ere ez diote ukorik egiten hitzorduari eta askotariko nobedadeak kaleratu ohi dituzte egun horren karietara, irakurleen gozameneko.

agenda

EUSKARAREN PLANGINTZA UNIBERTSITATEAN

Euskararen II. Plangintza onartu du Euskal Herriko Unibertsitateak

eman ta zabal zazu



Euskararen Erabileraren Normalizazi-orako II. Plangintza onartu zuen joan den martxoaren hasieran Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Batzarrak. Egitasmoa urrian jarriko da indarrean eta bost urtean ikasgaien %80 euskaraz eskaintzea aurreikusten du. Kontrako botorik gabe

onartu da bost urteko egitasmo berria. Bigarren Plangintza honek irakasleak, ikasketa eskaintza eta Administrazio eta Zerbitzu Pertsonala euskalduntzea du helburu.

Oraintxe bi dira EHUK dituen erronkarik nagusienak: titulazio eta ikasketa plan berrien ezarpena, batetik, eta euskalduntze plana, bestetik. Onartu berri den Euskararen Erabilera Plangintzak unibertsitate elebidunaren aldeko apustua egiten du.



ARIADNA DIRULAGUNTZAK

Europako Batasunaren programa da Ariadna eta liburu arloa eta irakurketari laguntzea du helburu. Besteak beste, Europako Batasunaren partaide diren estatuen kolaborazioa zuzendu nahi du. Horretarako, hainbat ekimen laguntzeko bidea egiten du. Adibidez, hizkuntza batetik besterako literatur lanen itzulpenak laguntzen ditu; halaber, liburu eta irakurketaren alde elkarlanean burutu litezkeen proiektuak. Gainera, liburugintzan ari diren profesionalen prestakuntza hobetzeko ekimenak ere babesten ditu Ariadna programak.

Europako Batzordeari zuzendu behar zaizkio eskabideak, maiatzaren 9a baino lehen. Batzorde horrek azpimarratu duenez, ez da epe luzamendurik onartuko. Inprimakiak jasotzeko, berriz, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailordetzara jo besterik ez dago.

EGONALDIAK FAMILIA EUSKALDUNETAN



Euskara ikasten ari diren ikasleak hartuko dituzten familia euskaldunei zuzenduriko kanpaina abiarazi du aurten ere HABEK. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren helburu nagusia da euskara ikasten ari direnei hizkuntza landu eta hobetu, edo euskalkiren bat ikastea aukera ematea. Etxean ikasleren bat hartu ohi duten familiek lau kidekoak izan behar dute, gutxienez, eta %70etik gorako euskaldun kopurua duten uda-

lerrietan bizi. Uztaila eta iraila bitartean egingo dira egonaldiak.

Programan parte hartu nahi duten familiek emana dute izena eta ikasleen aldia da hurren. Maiatzaren 9 arte dute izen emateko epea. Parte hartu nahi duten ikasleek 18tik 40 urtera bitarteko adina izan behar dute, eta HABEK finkaturiko euskalduntze programaziorako 8. Urratsa edo baliokidea izan daitekeen besteren bat gainditua izan behar dute.

EKE Uztaritzetik mundura



Internet-en da Euskal Kultur Erakundea. Uztaritzeko erakundeak abian jarri du bere web orrialdea. Bertan bere buruaren aurkezpena egiten du aurre-

nik eta, ondoren, dituen egiteko eta helburuak zehazten ditu. EKE-k euskara eta euskal baloreak dituela oinarri gogorazten du eta eskuartearen dituen proiektuen berri ematen du web orrialdean. Gainera, lankide dituen elkarten izenak ezarri ditu bertan, eta agenda bat ere bai, Ipar Euskal Herrian euskal kulturaren inguruan antolatzen diren ekitaldi eta gisakoen informazioa Internet erabiltzaileari jakinarazteko. EKE-ren web gunea euskaraz, frantsesez, gazteleraz eta ingelesez idatzirik dago. Orrialdera jotzeko helbidea: <http://www.eke.org> eta Erakundearekin harremanetan jartzeko, berriz: eke@wanadoo.fr

Jaurlaritzak eta Kontseiluak hitzarmena



EUSKALDUN EGUNKARIA

Lankidetzak hitzarmena sinatu zuten martxoan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Kontseiluak. Ondorioz, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bere egin du Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Honek oinarri hartzen du Jaurlaritzaren Euskara Plana euskararen normali-

ziazorako prestatu eta ezarri asmo zuten Plan Estrategikoa burutzeko.

Euskara Planaren arabera, datozen hamar urteotako erronkarik nagusiena da belaunaldi berriko euskaldunentzat euskara atsegin egitea -heldu-aroko eremu berezi eta garrantzitsuetarako-, eta erdarak bezain baliozko.

Horretarako, euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolatik harantzago eraman behar da eta, era berean, erabile- ra eremu garrantzizkoenetara zabaldu.

1999ko abenduaren 31 arte izango da indarrean hitzarmena eta Jarraipen Batzordea eratuko da hitzarmenean finkatutakoa betearazteko.

UZEIren "Ekonomia eta finantzak" hiztegia



Duela hamazazpi urte argitaratu zen UZEIren Ekonomia hiztegia, lan bat behin-behinekoa. Bi urte geroago

Finantzak hiztegia argitaratu zen, aurrezki-kutxetako beharrak asetzeko. Urteak joan arau, handitu egin da ekonomiako terminoak berrikusteko premia. Termino berriak ere sortu dira, eta beste zenbait, aldiz, zaharkitu. Euskaltzaindiak emandako arauak eta Hiztegi Batuak erabakitako oinarritzko lexikoak ere ikaragarri lagundu du ekonomiako hizkera finkatzen.

Egun, ekonomia gaiez jardun behar eta euskara erabiltzen da unibertsitatean. Bertako ikasleek hainbat material eta eskuliburu dute euskaraz.

Komunikabideetan ekonomia berriak euskaraz eman ohi dira. Aurrezki-kutxetako inprimaki, kutxazain automatiko eta gainerakoak euskaratuta daude... Horiek denak oinarri sendo izan dira UZEI garai bateko terminoak berrikusi eta hiztegi berria plazaratzeko.

Bi atal dira nabarmen hiztegi honetan. Lehenengoan lexikoa ageri da, euskaratik erdaretara. Gurean ohi denez, espainiera, frantsesa eta ingelesa dira erdarak. Bigarren atalean erdara/ euskara aurkibideak ageri dira, banaturik: espainiera-euskara, frantsesa-euskara, eta ingelesa-euskara.

Argitalpenaren Laguntzaileak izan dira: Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa, EHUko, NUPko eta Donostiako ESTE fakultateko irakasleak eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsite eta Ikerketa Saila.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 18 80 98
e-posta: M-Meaurio@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta:

